

# PROBA ESPEZIFIKOA

2010eko PROBA

**GEOGRAFIA**

PROBA

ERANTZUNAK






## Azalpenak

Probaren iraupena: ordubete.

1. Zehaztu, mapan, non dauden Iberiar penintsulako erliebe-unitate nagusiak (mendiak, mendiguneak, mendikateak, mendilerroak, sistemak, sakonuneak, azpimesetak).



- 2.- Hautatu bi galdera hauetako bat, eta erantzun horri.

A.- Migrazio-mugimenduak Espainian.

- Kausak eta ondorioak
- Barruko migrazioak
- Kanporako migrazioak
- Atzerritarren immigrazioa

B.- Nekazaritza-guneak, abeltzaintza eta basogintza Euskal Herrian.



3.- Definitu kontzeptu hauek. (aukeratu 3)


- Partzuergoa (apartzeria)
- Inflazioa
- Itsas zabaleko arrantza (alturako arrantza)
- Erdialde historikoa
- Populazioaren berezko hazkundera edo hazkunde begetatiboa
- Penelautada

4.- Taula eta grafikoa ikusita, erantzun galdera hauei:

- a) Egin ezazu heriotza-indizearen joerari buruzko iruzkin bat. Zergatik handitu da azken urteetan?
- b) Egin ezazu jaiotza-indizearen joerari buruzko iruzkin bat. Zergatik gertatu da beherakada nabarmen bat 1975etik aurrera?
- c) Egin ezazu berezko hazkunderak aldi horretan izan duen bilakaerari buruzko iruzkina, eta idatzi hurrengo urteetarako iragarpen arrazoitu bat.

Jaiotza- eta heriotza-indizeen bilakaera Espainian.

Urtea	Jaiotza-indizea *	Heriotza-indizea *
1940	24,3	16,5
1945	22,8	12,1
1950	20,0	10,8
1955	20,4	9,2
1960	21,6	8,6
1965	21,1	8,4
1970	19,5	8,3
1975	18,8	8,4
1980	15,0	7,9
1985	11,9	8,1
1990	10,3	8,6
1995	9,3	8,8
2000	9,9	9,0




\* Milakoa.



## **EBAZPENA: GEOGRAFIA (2010eko maiatza)**

Probaren iraupena: ordubete.

- 1. Zehaztu, mapan, non dauden Iberiar penintsulako erliebe-unitate nagusiak (mendiak, mendiguneak, mendikateak, mendilerroak, sistemak, sakonuneak, azpimesetak).**



### **Erantzuna:**

Meseta Central > Erdialdeko meseta  
Montañas Interiores > Barnealdeko mendiak  
Montañas que bordean la Meseta > Meseta inguruko mendiak  
Montañas exteriores a la Meseta > Mesetaz kanpoaldeko mendiak  
Depresiones exteriores > Kanpoaldeko sakonuneak  
Llanuras litorales > Kostako lautadak  
Islas volcánicas > Uharte bolkanikoak

UNIDADES DEL RELIEVE > ERLIEBE-UNITATEAK  
MAR CANTÁBRICO > KANTAURI ITSASOA  
CORDILLERA CANTÁBRICA > KANTABRIAR MENDIKATEA  
MONTES VASCOS > EUSKAL MENDIAK  
PIRINEOS > PIRINIOAK  
CORDILLERA COSTERO-CATALANA > KATALUNIako KOSTALDEKO MENDIKATEA  
DEPRESIÓN DEL EBRO > EBROREN SAKONUNEA  
MONTES DE LEÓN > LEONGO MENDIAK  
MACIZO GALAICO > GALIZIAKO MENDIGUNEA  
SUBMESETA NORTE > IPARRALDEKO AZPIMESETA  
SISTEMA IBÉRICO > IBERIAR SISTEMA  
SISTEMA CENTRAL > ERDIALDEKO SISTEMA  
Miño ibaia



Ebro ibaia  
Duero ibaia  
Tajo ibaia  
SUBMESETA SUR > HEGOALDEKO AZPIMESETA  
Júcar ibaia  
MONTES DE TOLEDO > TOLEDOKO MENDIAK  
Guadiana ibaia  
DEPRESIÓN ATLÁNTICA > SAKONUNE ATLANTIKOA  
Guadalquivir ibaia  
DEPRESIÓN DEL GUADALQUIVIR > GUADALQUIVIRREN SAKONUNEA  
SISTEMA BÉTICO > SISTEMA BETIKOA  
SIERRA NEVADA  
Segura ibaia  
OZEANO ATLANTIKOA  
BALEAR UHARTEAK  
MEDITERRANEO ITSASOA  
ISLAS CANARIAS > KANARIAR UHARTEAK  
Ceuta  
Melilla  
kilometroak



## 2.- Hautatu bi galdera hauetako bat, eta erantzun horri.

### A.- Migrazio-mugimenduak Espainian.

- Kausak eta ondorioak
- Barruko migrazioak
- Kanporako migrazioak
- Atzerritarren immigrazioa

### B.- Nekazaritza-guneak, abeltzaintza eta basogintza Euskal Herrian.



## **Erantzuna:**

### **A.- Migrazio-mugimenduak Espainian.**

Espainian, migrazio-mugimenduak populazioaren portaeraren fenomeno demografiko bereizgarrietako bat dira; barruko nahiz kanporako migrazio-mugimenduak garrantzitsuak izan dira, eta eragin nabarmena izan dute historian.

Migrazio-mugimenduen artean, barrukoak dira (herrialdearen barruan gertatzen direnak) kuantitatiboki handienak. Arrazoa ekonomikoa izan da, nagusiki (langabezia, presio demografikoa, eskulanaren beharra...); beraz, herrialdearen egoeraren isla dira, eta, horregatik, eskualdeen arteko desoreken zergatia.

Barruko migrazio mota bat baino gehiago dago, denboraren eta jomugaren arabera.

Urtarokoek edo aldi baterakoek iraupen mugatua dute, eta ziklikoak izan ohi dira (uzta-bilketen garaiei lotuak); behin betikoak edo iraupen luzekoak hainbat motatakoak izan daitezke: garrantzitsuena nekazaritza-guneetatik hirietarako migrazioa da, nekazaritza-lanen mekanizazioak eraginda, baina hiri artekoak, herri artekoak edo hiri barrukoak ere izan daitezke. Azkenik, pendulu erako barruko migrazioak —hau da, erdialdearen eta periferiaren artekoak—, lanagatik edo aisiagatik izaten direnak, gehitzen ari dira gaur egun, ez hiriak handitzen ari direlako soilik, baita aisiarako turismo-enpresa handiak sortu direlako ere.

Migrazioen zergatiak eta migrazioen arteko aldeak aztertzeko, beharrezkoa da kontuan izatea noiz gertatu diren; horri dagokionez, hiru aldi nabarmen bereizten dira:

- Nekazari-exodoa, 1960tik 1975era. Mugimendu hura oldean gertatu zen, metropoli-barrutiak garatu ahala. 1964. urtea da, tarte hartan, emigrante kopuru handienekoa. Urte haietan, 15 probintziak soilik izan zuten saldo positiboa, eta 35ek negatiboa. Datu horrek jomugen kontzentrazio handia izan zela erakusten du, eta jendearen jatorria askotarikoa zela oso; horretan, dena den, nekazaritza-jarduerako eta hazkunde demografiko handiko probintziak nabarmentzen dira. Aipatzekoak dira, etorkin-gune nagusi gisa, Bartzelona eta Mediterraneoko probintziak; barrualdean, Madril, Gasteiz eta Zaragoza askotariko jarduera ekonomikoko hiriak ziren jada —turismoa ere ageri da, besteak beste—, eta eragin-eremu handikoak. Behin betiko migrazioak dira horiek.

- Itzulera-mugimenduak, 1975etik 1985era bitartean. 1975az geroztik murriztu egin zen nekazari-exodoa, eta krisia nabarmentzen hasi zen metropoli handien hazkundean, hiri ertainen erakargarritasuna areagotzearekin batera. Arrazoa 1975eko krisi ekonomikoa izan zen, migrazio-korronteen aldaketa eragin





baitzuen: emigranteak jatorrizko tokietara itzultzen hasi ziren, eta hiri arteko migrazioak gehitu egin ziren. Ugaritu egin ziren saldo positiboa zuten probintziak; eremu erakargarrienak bigarren belaunaldiko immigrazio-probintziak dira (Tarragona, Girona, Alacant, Castelló, Araba, Nafarroa edo Zaragoza). Beste batzuek itzuleragatik zuten saldo positiboa. Bartzelona, Bilbo eta Gipuzkoa, ordea, emigrazio-gune bilakatu ziren, eta Madril urte batzuk geroago, industria dibertsifikatuagoa zuen eta.

Oro har, banatu egin zen saldo positiboa, eta kontzentratu negatiboa, migrazio-joerak aldatzearen ondorioz. Emigrantearen ezaugarriak ere aldatu ziren: lehenagokoak pertsona gazteak eta ezkongabeak ziren, lehen sektoretik bigarreneira jotzen zutenak; ondorengo migrazioak familia osokoak ziren, hiri handietako bigarren sektoretik probintzietako hiriburu- eta hirugarren sektorerara jo zutenak.

- Probintzia barruko migrazioak ugaritzea 1985etik aurrera, nahiz eta ez desagertu probintzia artekoak. Mugikortasuna da horren eragilea, bai profesionalena (gune ekonomikoki garatuagoetatik nolabaiteko garrantzia duten hirietara doazenak), bai erretiratuena nahiz birmoldaketan ondorioz aurrez erretiratuena ere (gune industrialetatik jaioterrira itzultzen direnak). Gaur egun, hiri barruko emigrazioa ari da indartzen, erdialdetik kanpoaldera doazenena garraio-sistemaren hobekuntzak lagunduta. Horrek asko handitu ditu lo-hiriak eta mota guztietako bizitegi-guneak. Halako pendulu-mugimenduek garrantzi handia dute Bilbon, Madrilan, Bartzelonan eta antzeko hirietan.

Gaur egun, barneko immigrazioa, hain garrantzitsua 50eko eta 60ko hamarkadetan, ia desagertu egin da Euskal Autonomia Erkidegoan, eta gaur egun etorkinak atzerriko herritarrak izaten dira (Europako ekialdekoak, Afrikakoak eta Hego Amerikakoak), beste erkidegoetan baino portzentaje txikiagoan, hala ere.

Kanporako migrazioei dagokienez, aipatu beharra dago Espainia emigrante-herrialdea izan dela tradizionalki: baliabiderik ezak, populazioaren XIX. mendearen erdialdeaz geroztiko hazkunde azkarrak, atzerapen industrialak eta Gerra Zibilaren ondorengo diktadurak emigratzera eraman zuten populazioa. Dena den, gaur egun (batez ere 70eko hamarkadaz geroztik) joera irauli egin da, eta Europako beste herrialdeetako eta, batez ere, garabidean dauden herrialdeetako populazioa hartzen duen herrialdea da, gaur egun, Espainia.

Zergatiei dagokienez, Espainiaren egoera ekonomikoa eta politikoa nabarmendu behar dira, lehenik eta behin, herrialde demokratiko eta politikoki egonkor bilakatu baita 1978az geroztik; era berean, haren garapen ekonomikoa aipatu behar da, batez ere Europar Batasunean sartu zenez geroztik.

Etorkinen jatorria aldatuz joan da: 70eko hamarkadan iberoamerikarrak ziren nagusi, gobernu diktatorialek eragindako ezegonkortasun politikoak zein iberoamerikarrekin lotzen gaituzten harreman kulturek bultzatuta; 80ko hamarkadan Iranetik eta Iraketik zetorren populazioa ugaritu zen, bi herrialdeen



arteko gerra zela eta; Berlingo harresia eraitsi eta SESB desagertu ondoren, Europako ekialdeko herritarrak iristen hasi ziren, eskualde haien porrot ekonomikoa dela eta.

Bosniako gerrak ere Jugoslavia ohiko etorkinak ugaritzea eragin zuen. Gaur egun garrantzi handia dute Afrikako etorkinek, nagusiki Magrebeko herrialdeetatik datozenek, hala nola Marokokoek eta Aljeriakoek; izan ere, bi herrialde horietan populazio-hazkunde handia dago, eta, beraz, lanerako adinean dauden gazteen kopurua ere handia da, eta oso handia, halaber, langabezia-maila, atzerapen ekonomikoaren eta globalizazioak eragindako desegituraketaren ondorioz. Gainera, badituzte fundamentalismo islamikoaren goraldiak dakartzan arazo politikoak ere, bereziki Aljerian.

Espanian bizi diren etorkinak hiru taldetan sailkatu daitezke haien egoeraren arabera: hainbat urtez Espanian bizi izan ondoren nazionalitatea eskuratzen dutenak, eta, beraz, eskubide osoko espainiartzat jotzen direnak; beren jatorrizko nazionalitateari eutsi arren bizilekua izateko baimena eskuratzen dutenak (lanerako baimena dutenak, iheslari politikoak eta bien familiartekoak); eta "legez kanpoko" edo "paperik gabeko" etorkinak, juridikoki existitzen ez direnak eta, horregatik, zenbatzen zailak direnak. Onartutako atzerriko etorkin gehienak Europako herrialdeetatik datoz: Alemaniatik, Frantziatik, Portugaletik eta Erresuma Batutik; haien ondoren, latinoamerikarrak dira ugariak eta, azkenik, iparrafrakarrak daude.

Atzerriko biztanle gehien dituzten erkidegoak lan-aukera zabalenerako dira, hala nola Madril eta Katalunia, eta ondoren daude Andaluzia, Valentziako Erkidegoa eta Kanariak. Gehienbat lehen sektorean (nagusiki, nekazaritzan) eta hirugarren sektorean (eraikuntzan eta etxeko zerbitzuan) jarduten dute.

Ondorioei dagokienez, aipatzekoak dira jatorrizko herrialdeetan gertatzen direnak. Izan ere, ondoen prestatutako eta ugaltzeko adinean dagoen populazio-sektorearen zati bat galtzen dute; eskualde batzuk ia erabat husten dira, eta atzeratu egiten dira balizko aldaketa ekonomiko eta politikoak, atzerrira egiten baitu aldaketa horiek bultzatzen dituzten populazioak.

Baina aipatzekoak dira, halaber, ondorio positiboak, hala nola dibisen sarrera, familien nahiz, oro har, herrialdearen berrindartze ekonomikoari laguntzen diona. Jomuga diren herrialdeei dagokienez, kasu honetan Espainiari dagokionez, ondorio positiboak aipatu behar dira lehenik, hala nola eskulan merkea iristea, espainiarrek baztertzen dituzten lanpostuak hartzen dituenak.

Hala, handitu egiten da Gizarte Segurantzaren erregimen orokorreko kotizazioen kopurua eta, ondorioz, murriztu egiten da mendekotasun-tasa. Bigarrenik, iristen den populazioa gaztea da, eta, ondorioz, igo egiten da jaiotza-tasa oso maila apaletan zegoen erkidegoetan (zenbaitetan, Europako





maila baxuena zuten). Azkenik, aipatu beharrekoa da arrazakeria eta xenofobia areagotu egin direla zenbaitetan, gizarteratze-zailtasunengatik, bereziki etorkinek legez lan egiteko aukerarik ez dutenean eta ghettotan zokoratuta geratzen direnean. Horrelako egoerak saihesteko, beharrezkoak dira ahal bezain azkar gizarteratzen lagunduko luketen politika ekonomiko, sozial eta kulturalak, eta, horrelakorik ezean, kultura-aniztasuna bultzatzea. Horregatik, gero eta etorkin gehiago iristen denez, gobernuak saiatzen ari dira kontrol-, gizarteratze- eta asimilatze-politikak indarrean jartzen.

B.- Nekazaritza-guneak, abeltzaintza eta basogintza Euskal Herrian Euskal Herriko nekazaritza-guneak bi multzo handitan banatuta daude, gaur egun: batean nekazaritza da nagusi, eta bestean, abeltzaintza. Biek ezaugarri berak dituzte beren bilakabidean: landutako lurak gutxitzea, ekoizpena intentsiboago bilakatzea eta salmenten ugaritzea, baso-azalera emendatzea, guneka espezializatzeko joera, landa-eremuetako populazioa murriztea...

#### Nekazaritza-ustiategiak

Nekazaritza-ustiategien tamaina txikia da: EAEn 6 hektarea, eta Nafarroan zein Ipar Euskal Herrian 16 hektarea. Beraz, nekazariak beste irtenbide ekonomiko osagarri batzuk bilatzen dituzte industrian edo zerbitzuetan. Jarduera-aniztasunak ekoizpen-unitateen % 38ri eragiten dio, eta gehienak familia-ustiategiak dira.

Mendialdeetan, ustiategiak txikiak izateaz gainera, jabegoa, askotan, ez da pribatua; indibiso-egoeran basoko larreak dituzten herri-lurak dira (Nafarroa Beherea eta Zuberoa). Antzeko egoeran daude isurialdeen banalerrotik hegoalderako ustiategietan, Erronkariko eta Zaraitzuko komunitateetan.

Ugari dira, bereziki Bizkaian eta Gipuzkoan, 5 hektareatik beherako ustiategiak; haietan, abeltzaintza nahiz basogintza dira ekoizpen-jarduera nagusiak. Jabetza handiak Nafarroan daude, eta erdialdetik hegoalderako lehorreko zereal-sailak izan ohi dira. Ustiategi ertainak Arabako eta Nafarroako labore antzeko eskualdeetan daude, eta Ipar Euskal Herriko abeltzaintza-lurretan.

Abeltzaintza-ustiategien kasuan, abelburu kopuruaren arabera izaten da neurria. Hiru abelburu baino gutxiagoko ustiategiak desagertzeaz daude, bai eta adinean aurrera doazen jabeak dituzten ustiategiak ere. Desagertze hori tamainari esker mekanizazioa erabil dezaketenen mesederako da.

Partzuergoa (apartzeria) eta errenta —alegia, zeharkako ustiatze era tradizionalak— nahikoa murriztu dira, Nafarroan partzuergoa izan ezik.

Bestelako ustiategi-formak, tradizio luzekoak, nekazaritza-zerbitzuetako eta nekazaritza-ekoizpeneko kooperatibak dira; haiek bermatu dute familia-ustiategien iraupena. Araban eta Nafarroan sortu ziren XX. mendearen hasieran filoxera-izurriteari aurre egiteko, eta hedatzen jarraitu zuten 60ko hamarkadan. Nabarmenezkoak dira zerbitzurakoak eta nekazaritza-produktuak



merkaturatzeoak. 70eko hamarkadan abeltzaintza-sektorera eta pentsuen, zerealen, patatan eta abarren merkaturatzeraz hedatu ziren.

Badira bestelako nekazaritza-elkartek ere: Eraldaketarako Nekazaritza Sozietateak (ENS). Ez dira kooperatibak bezain zurrinak antolakuntzari eta bazkideen betebeharreri dagokienez, eta gero eta eragin handiagoa izaten ari dira, egunez egun.

Euskal Herrian, hasi Kantauri itsasertzetik nahiz Pirinioetako haranetatik eta Ebroko Erriberaraino, nekazaritza-gune mota ugari dago, eta laborantza-dibertsitate handia da ezaugarria. Bi mota nagusitan banatu ditzakegu:

#### Lehorreko laborantza

Arabako lautadan eta Nafarroako Pirinioaurreko arroetan ageri da, lur landugabea eta basoak kenduta. Toki horietan biztanleak oso kontzentratua daude: populazioa herrixketan edo herri handietan biltzen da. Han belarkien laborantzak garrantzi handia du, bereziki zerealenak (landutako lurren % 61). Araban, landa-lurren % 61,4 hartzen du zerealak, eta Nafarroan, % 50 baino gehiago. Arabako Haranek, Arabako Lautadak eta Nafarroako Pirinioaurreko arroek zereal-tradizio luzea dute, klima dela eta (heze-epela). Gaur egun, zerealen laborantza eta bazkarakoena nahiz oliodunena (koltza eta ekilorea) txandakatzen dituzte.

Arabako eta Nafarroako kanpoko mendietatik hegoaldera, lehorreko laborantzak jarraitzen du: zereala eta askotariko laborantza mediterranea. Mahasgintza da Arabako Errioxako laborantza nagusia, eta hiruko mediterranea (garia, mahatsa eta olibak) Nafarroan.

#### Ureztapeneko laborantza

Nafarroan, landutako lurren % 23 hartzen du, eta Araban landutakoen hamarrena. Laborantzaren etekina handitzearen, ureztatzea sustatu da Arabako Lautadan. Laguntza gehien jasotako laboreak patata eta industriarako laboreak izan dira. Nafarroan, ekipamenduak eta etekina hobetzen egiten ari dira ahaleginik handienak, eta produktu nagusiak zereala (artoa), barazkiak eta fruta-arbolak dira.

#### Abeltzaintza- eta artzaintza-eskualdeak

Ipar isurialdea eta mendialdeak abeltzaintza-ingurune petoak dira, belarra ekoiztera bideratutako lurrekin, dela belarretarako, dela larrerako. Bi espazio bereizten dira:

Eskualde ozeanikoak. Nekazaritza-espazio honen antolaketa lotura estua du klimarekin eta erliebearekin; klima hezea eta epela da, eta erliebea altitude eskasekoa, nahiz eta topografia zakarra den, ibar estuak eta malkar handiak baititu.



Baserria, familiako nekazaritza-ustiategi gisa, abeltzaintza aldera lerratuz joan da, eskualdeko merkatu garrantzitsu baten eskaria handitzearen ondorioz.

Nekazaritza-espazio horretan tartekatuta daude larre iraunkorrak eta askotariko laborantza (hala nola artoa, leguminosoak, bazkarakoak eta, zenbaitetan, fruta-arbolak). Ekoizpena abeltzaintza-ekoizpenaren mende dago, hein handi batean, batez ere barrualdeko eskualdeetan. Dena den, produktu-dibertsitatea handiagoa da kostaldeko eskualdeetan, hiri-merkatuen eskariaren ondorioz. Bazkarako laborantzaz gain, nabarmentzekoak dira barazkiak, txakolina egiteko mahastiak (Bakion eta Getarian), fruta-arbolak eta berotegietako laborantza.

Dibertsitate hori Nafarroa Beherean eta Lapurdiko barnealdean ere gertatzen da. Haietan artoa da labore nagusia, eta badira larreak ere behi-aziendaren bazkarako.

Mendialdea. Nekazaritza-, basogintza- eta artzaintza-sistemak nagusi diren espazioa da. Ekoizpena baliabide naturalen arabera da —basoa eta goilarreak—. Zereal anitzeko laborantza tradizionalak alde batera utzi dira; orain, hazitarako patata, zereala eta larre artifiziala txandakatu egiten dira.

Nafarroako iparraldean larre naturalak eta belardiak dira abeltzaintza-baliabide nagusia. Haran bakoitzak mendi-elkarte bat osatzen du, baliabideak herritarrek balia ditzaten; mendebaldeko mendi gehienetan diraute egitura horiek: Urbanan, Andian, Aralarren eta Gipuzkoan eta Arabako Partzuergo Orokorrean (Segura, Zegama, Idiazabal, Zerain, Donemiliaga eta Asparrena).

Udazkena iristean, artaldeak mendietatik haranetako larreetara jaisten dira. Modernizazioak ez du eragotzi transhumantzia. Erronkariko eta Zaraitzuko artaldeek larreak izaten dituzte Bardean, eta Ebroren Erriberako zereal-kortetan belarra alokatzen dute osagarri gisa. Mendebaldeko mendietako artaldeak ibarretara jaisten dira (Gorbeiatik Larrabetzura, Urbiako larreetatik Gipuzkoako Goierriara) negua baserrietan emateko. Ipar Euskal Herrian, artaldeak haranetako beheko aldera edo Aturriren sakonunera jaisten dira. Udaberria iristean, mendietako larreetara itzultzen dira artaldeak.

### **3.- Definitu kontzeptu hauek. (aukeratu 3)**

- **Partzuergoa (apartzeria)**
- **Inflazioa**
- **Itsas zabaleko arrantza (alturako arrantza)**
- **Erdialde historikoa**
- **Populazioaren berezko hazkundera**
- **Penelautada**

**Erantzuna:**



- **Partzuergoa (apartzeria):** Lurjabea eta lurra lantzen duena harremanetan jartzen dituen luraren edukitza-erregimena. Kontratu aldakorra da. Haren bidez, langileak eskuratutako uztaren edo abeltzaintza-ekoizpenaren zati proportzionala ordaintzen dio jabeari.

Gehienetan, lurjabeak zergak ordaintzen ditu, eta lurra, makinak, haziak... jartzen ditu; partzuerrak lana jartzen du. Espainian, hedatuta zegoen Balearretan, Katalunian, Aragoian, Nafarroan, Valentzian, Murtzian, Andaluzian, Extremaduran eta Gaztela-Mantxan. Gaur egun asko murriztu da; izan ere, egokiagoa da ekonomia itxirako edo iraupeneko ekonomiarako.

- **Inflazioa:** Prezioen igoera orokor eta iraunkorra da. Inflazio-egoerak kalte egiten die soldatapekoei, pentsiodunei eta errentadunei; izan ere, ez soldata edo pentsioa, ez jasotzen dituzten errentak ere, ez dira prezioen indize orokorraren erritmo berean igotzen.

- **Itsas zabaleko arrantza (alturako arrantza):** Itsas zabalean egiten da, harrapaketa handiak egiteko ontzi eta teknika garatuak erabiliz. Ontziek ekipo handiak behar dituzte, harrapatu nahi diren arrainen araberakoak. Horretarako, itsas zabalean hainbat egun eman behar izaten dituzte, arrain-sardei eta arrainen migrazioei jarraitzen. Gaur egun, itsas zabaleko arrantza eta urrunekoa edo arrantza handia deritzona bereizten dira; azken horretan arrantzalea sei hilabeteko kanpainarako joaten zen Islandiako edo Ternuako kostetara. Bi motak arrantza industrialari dagozkio, eta elkarren oso antzekoak dira. Harrapatutakoa portuetako lonjetan saltzen da beti. Espainiako itsas zabaleko arrantza Ternuako, Kanadako edo Afrikako kostako kaletan egiten da

- **Erdialde historikoa:** Hirigune zaharra edo erdialde historikoa industria aurreko hiriaren zatia da, Erdi Arokoa edo Aro Modernokoa, nahiz eta hiri batzuek erromatarren garaiko harresiak edo eraikinak dituzten oraindik ere. Oinplanoa irregularra izan ohi da, eta eraikinak zaharrak eta solairu gutxikoak, eta askotan nahiko egoera txarrean egoten dira. Espainiako hirietako hirigune zaharrek erabilera mistoa dute: batetik, haietan daude denda eta negozio asko, irispide onak baitituzte, XIX. mendearen bigarren erdiaz geroztik egindako kale eta eraikinen eraberritzearen ondorioz; bestetik, etxebizitzak ere badituzte. Horrelakoetan, aldea nabarmena izaten da kale eta etxe zaharkituetako auzuneen —adinean aurrera doazenen eta diru-iturri urrikoen nahiz baztertuen bizitoki direnak— eta kale nahiz eraikin eraberrituak dituzten kalitate handiko auzuneen artean —errenta altuko jendearen bizileku dira—.

- **Populazioaren berezko hazkundera edo hazkunde begetatiboa:** Populazio jakin bateko jaiotzen eta heriotzen arteko aldea da. Berezko hazkundera edo begetatiboa diferentzia horren emaitza da, eta ehunekotan adierazten da. Emaitza positiboa izan daiteke (populazioa hazi egiten da) edo negatiboa (populazioa murriztu egiten da). Hazkuntza-tasa begetatiboa altua dela esaten da % 2 gainditzen bada, ertaina dela % 1-2koa bada, eta apala % 1ekoa baino txikiagoa bada.




- **Penelautada:** Erliebearen formetako bat, eremu handia hartu ohi duena eta, higaduraren eraginez, azalera gorabehera leunekoa duena, ia altitude-alderik gabea haranen eta ibaiarten artean. Material zahar eta higatuek osatzen dute. Herrialde epeletan, gainazalen erregulartasunari esker bereizten dira, ibaiarte guztiek altitude bera baitute, eta haranek berriz landu dituzte Tertziarioko penelautada horiek. Erliebeak erabat deuseztatzean bukatzen den higadura-zikloari dagokio, eta emaitza erliebe monotonoa da, oinarrizko mailarekiko altitude txikikoa.

**4.- Taula eta grafikoa ikusita, erantzun galdera hauei:**

- a) Egin ezazu heriotza-indizearen joerari buruzko iruzkin bat. Zergatik handitu da azken urteetan?
- b) Egin ezazu jaiotza-indizearen joerari buruzko iruzkin bat. Zergatik gertatu da beherakada nabarmen bat 1975etik aurrera?
- c) Egin ezazu berezko hazkundeak aldi horretan izan duen bilakaerari buruzko iruzkina, eta idatzi hurrengo urteetarako iragarpen arrazoitu bat.

**Jaiotza- eta heriotza-indizeen bilakaera Espainian.**

Urtea	Jaiotza-indizea *	Heriotza-indizea *
1940	24,3	16,5
1945	22,8	12,1
1950	20,0	10,8
1955	20,4	9,2
1960	21,6	8,6
1965	21,1	8,4
1970	19,5	8,3
1975	18,8	8,4
1980	15,0	7,9
1985	11,9	8,1
1990	10,3	8,6
1995	9,3	8,8
2000	9,9	9,0



\* Milakoa

**Erantzuna:**

- a) Egin ezazu heriotza-indizearen joerari buruzko iruzkin bat. Zergatik handitu da azken urteetan?

Heriotza-indizearen joera beheranzkoa izan zen 1980 arte, eta urte hartan gorantz hasi zen poliki. Beherakada nagusia 1940tik 1960ra bitartean gertatu zen. Beherakada horren faktore nagusiak hauek dira: Gerra Zibilaren bukaera



eta gerraostearen amaiera; eta, 50eko hamarkadaren bukaera aldean, elikaduraren, osasun-baldintzen eta higiearen hobekuntza, horrek lagundu egin baitzion heriotza-tasaren murrizketari.

60ko eta 70eko hamarkadetan eta 80koaren hasieran, indizeak behean iraun zuen. Garai hartan osasun-zerbitzuen hobekuntza hedatu egin zen, eta bizimaila handitu; horrek berekin ekarri zuen elikaduraren eta bizi-kalitatearen hobekuntza. Ondorioz, bizi-itxaropena nabarmen hazi zen, eta populazioa pixkanaka zahartu zen, ez baitzen izan jaiotza-tasaren igoerarik.

90eko hamarkadan heriotza-tasa hazi egin zen pixka bat: 1980an 7,9 zen, eta 9,0ra iritsi zen 2000. urtean. Hazkunde txiki horren arrazoia bizi-itxaropenaren handitzeak ekarritako populazioaren zahartzea da.

**b) Egin ezazu jaiotza-indizearen joerari buruzko iruzkin bat. Zergatik gertatu da beherakada nabarmen bat 1975etik aurrera?**

Jaiotza-tasa nabarmen jaitsi zen 1950 arte; urte hartan milako 20 izan zen. Murrizketa horren kausa Espainiako gerra ondorengo zailtasun ekonomikoak izan ziren.

1955ean eta 1960an *baby-boom* delakoa gertatu zen, gerra baten ondorengo ohiko jaiotza-igoera. Hala ere, joera hori oso azkar irauli zen 1965etik aurrera. Jaitsiera motela izan zen 1965etik 70eko hamarkadaren amaierara bitartean, eta oso bizkorra 1980tik 1995era bitartean. Jaiotza-tasaren murrizketa handi hori azaltzen duten faktoreak hauek dira: bizi-mailaren igoera, emakumea lan-merkatuan sartzea, antisorgailuak hedatzea, eta abar. Gainera, kontuan izan behar dira krisi ekonomikoa, langabezia-indize handia (*baby-boomeko* belaunaldiak lan-merkatura iristearekin batera gertatua), etxebizitzak garestitzea, eta gazteak gurasoen etxetik ateratzeko, ezkontzeko edo seme-alabak izateko adina atzeratzea...

Joera hori moteldu eta irauli egin zen 2000. urtean; orduan, poliki gorantz hasi zen etorkinei esker, etorkinek lehenengo belaunaldian ugaltze-tasa handia izaten baitute.

**c) Egin ezazu berezko hazkundeak aldi horretan izan duen bilakaerari buruzko iruzkina, eta idatzi hurrengo urteetarako iragarpen arrazoitu bat.**

Berezko hazkundeak garrantzitsua izan zen 1955etik 1975era, hau da, aurreko ataletan aipatu diren arrazoiak direla-eta jaiotza-tasa handitu eta heriotza-tasa murriztu zen urteetan. 1975etik aurrera, berezko hazkundeak jaisten hasi zen 1995ean milako 0,5era iritsi arte. Hori hazkunde ia nulua da; belaunaldien txandakatzea arriskuan jartzen du, eta ondorio demografiko eta ekonomiko garrantzitsuak ditu herrialdearentzat: populazioaren zahartzea eta "ongizatezko estatua" delakoari eusteko zailtasunak (pentsioak, hezkuntza, osasuna, eta abar).

**EBALUAZIO-ADIERAZLEAK:**



- Galderei erantzun zehatza ematen die, modu koherente eta antolatuan.
- Ongi arrazoituz ematen du iritzia.
- Badaki grafikoak interpretatzen eta iruzkinak egiten.
- Iberiar penintsulako erliebe-unitateak mapan kokatzen ditu.

**GALDERETAKO PUNTUAZIOA:**

**1., 2. eta 4. galdera:** 3 puntu

**3. galdera:** 1 puntu

**PROBAKO GALDEREN ETA EZAGUTZA-ADIERAZLEEN ARTEKO  
HARREMANA**

<b>GALDERA</b>	<b>EZAGUTZA-ADIERAZLEA</b>
1	G.2., 1.1., 3.1.
2	5.1., 5.3. / 4.1., 4.2., 4.3.
3	3.1., 4.1., 5.2.
4	G.2., 1.2., 5.1.